

In memoriam

**Iñaki Beobide Arrizabalaga
(Zumaia, 1934 - Lezo, 2024)**

—Joxemari Iriondo—

Ez dakit gure Akademiak bazekien zorretan nintzela Iñaki Beobiderekin, eta horregatik-edo eskatu didala hilberri labur hau. Eskerrik asko.

Beobide polifazetikoa

Iñaki Beobide Zumaian jaio zen, 1934ko abenduaren 8an, eta 2024ko urtarrilaren 14an hil zen, 90era bidean. Euskaltzain urgazlea zen, 1965eko irailaz geroz. Bilbon barnetegi batean bost urte egin ostean, Industria Maisutza ikasi zuen, baina euskarari eman zion bere bizitza osoa. Iñaki Beobide saltseroa bezain polifazetikoa zen, eta euskara eta euskal kulturaren mundu txiki/handian murgildu zen. Euskara maite zuen, eta euskal munduari lotuta bizi izan zen beti.

Loiolako Irratian

Ezkutuko lan isiletan ezagutu nuen Beobide, eta hartan zebilela, auto-istripu latza izan zuen. Ondoren, istripu okerragoa: aldi bateko espetxealdia.

1961-62an, astero ordu erdiko irratsaioa grabatzen zuten larunbat arratsaldetan Beobideren etxean, Loiolako irratian, Seguran eta Arraten emateko. Donostiarrak -Jarrai taldea zen egile, eta Iñaki bera saioaren arduradun. Garaian garaiko gaiak, nekazaritza, euskara eta euskal kultura ziren irratsaioaren ardatza eta muina, irrati horien ingurua baserritarra eta euskalduna zelako, beharbada.

Antzerkia eta dantza

Jarrai antzerki taldea zen Iñaki Beobideren begietako ninia, eta guztiz garrantzitsua izan zen euskal antzerkiarentzat. 1957 azken aldera hasi zen Jarrai antzerki taldea sortzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Julio Urkixo liburutegian bildu eta antzerki-testuen irakurketak eginez. 1959an Euskaltzaindiak antolatu zuen Gipuzkoako Antzerki Taldeen Txapelketarako Jose Artolaren *Motza herrian* bakarrizketa eta Jazinto Karraskedoren *Etxe aldaketa* prestatu zituzten.

Jarrai taldea guztiz garrantzitsua izan zen gure antzerkiaren munduan, beti ere Beobideren zuzendaritzapean. Besteak beste, 1961ean, garai hartan Venezuelan bizi zen «Victor Ruiz de Añibarro»ren (Martin Ugaldere ezizena) *Ito edo ezkondu* eman zuten Antzoki Zaharrean, Nemesio Etxanizek euskaratuta. 1962ko apirilean, Club de Teatro programaren barruan, Tenesse Williams-en *Kristalezko iruditxoak* Benantzio Larrartek euskaratuta, baita Telesforo Monzonen *Menditarrak* eta Priestley-ren *Ertzaina etxean* ere, Julian Lekuonak euskaratuta.

Kanpoko zenbait autoreekin, Xalbador Garmendia, Piarres Lartzabal, Telesforo Monzon, Gabriel Aresti eta abarren obrak tartekatu zituzten. Eta Iñaki Beobide hantxe, saltsa hartako perrexil.

Talde hartan ezagutu genituen, besteak beste, Arantxa Gurmendi, Saizarbitoria, Txaro Arteaga, Xabier Lete, Axen Egaña, Rikardo Ugarte, Xabier Goenaga, Mertxe Uranga, Mikel Forkada eta abar. Hamar urteren buruan, hogei bat antzezlan eman zituzten, molde zaharreko euskal antzerkia berritze aldera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Dantza, Antzerki eta Ahozko Literatura Saileko arduradun izan zen, eta Antzez Taldeen Elkarte eta Antzerti aldizkaria sortu zituen, eta Euskal Dantzarien Biltzarreko idazkari izan 80ko hamarraldian.

Antzerkia eta dantza, bi mundu horien ondorio izango da bere seme-alaba Olatz eta Aiart Beobide Egañaren arrakasta antzerkian eta dantzan.

Zeruko Argian

Ramon Saizarbitoria eta biok astero bildu omen ziren bi urtez, «Gazte naiz» atala prestatzeko *Zeruko Argian*. Bestalde, «Jarraiko Agirre» edota «Joseba Agirre» ezizenez sinatzen zituen bere idazlanak, orduko euskaran. Iñaki ez zen kazetaria, baina bai ausarta eta esparru askotan eskuak eta borondatea jarri zituen langile nekaezina. Inor gogoratuko ote da gero Z. Argiako «Gazte naiz» sailaz edota 1965ean Lourdes Iriondori¹ eta urte berean Mikel Laboari² egindako elkarrizketez, adibidez? Lehenengoan «Jarraiko Agirre» izenpetu zuen, eta bigarreanean ez zuen izenik jarri. «Bestelakoak al gera?» sailean, berriz, «Iñaki Beobide» izena erabiltzen zuen.

EDIGSA/Herri Gogoa

Ez Dok Amairu taldeko kantariak eta Euskal Herriko musikari asko Bartzelonan, Madrilan, Bilbon eta Iparraldean (CINSA-Xabier Gereño eta Agorila-Baiona) grabatzen hasiak ziren, baina horretarako mezenas bat aurkitu eta grabaketarako estudioa antolatu zuen Urnietako saletarren ikastetxeko aretoan lehenik (1967-1971) eta Donostiako Gros auzoan gero (1971-1980), eta urteak egin zituen lantegi hartan, 1980ra arte. Huraxe izan zen Iñakiren zereginik maiteena, beharbada. Hantxe hartu zuen bere biziko gozatua.

Mezenas bat behar eta ez zuen edozein txorimalo aurkitu: Venezuelatik dolarrez ondo hornituta etorrita zen Pako Miangolarra gernikar abertzalearen babesa lortu zuen Herri Gogoa sortzeko, eta handik pasatu ziren Ez Dok Amairukoak (Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Julen Lekuona, Oskarbi taldea, Artze anaia txalapartariak, Antton Valverde, Pantxoa eta Peio eta abar) eta beste zenbait (Estitxu, Xabier Saldias, Mikel Arbea, Arriaran, Ortzadar, Gorka Knöör, Txomin Artola, Joxepe Irigaray, Haizea, Lauburu, Euskaros, Lupe, Joxe Mari eta Mikel, Aitor Badiola, Amaia Zubiria eta Pascal Gaigne...), Enrike Zelaia *Zazpiak bat*³ eta abar ere. Herri Gogoak grabatu zituen *Herrikoi-musika*

¹ *Zeruko Argia*, 1965-06-13, 4. or.

² *Zeruko Argia*, 1965-08-01, 4. or.

³ Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Zuberoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea (gero, HOTS eta Elkar).

sorta⁴ bikaina, *Euskal musika klasikoa*⁵, *Organua*⁶, *Txistua*⁷, *Haurrentzat ipuinak*⁸, *Bertsolariak*⁹, Shegundo Galarza, etab. Gazteriari zerbait eman nahi eta Akelarre Saila¹⁰ ere sortu zuen, kanpoko musika euskaldundu eta dozena erdi bat disko kaleratuz. Guztira berrehun bat disko egin zituen. Ekoizpenak, grabaketak, nahasketak eta diskoari azken ukituak eman eta berak kaleratzen zituen, promozio-lanak ere bere gain hartuz. Durangoko Euskal Disko eta Liburu Azokara eta beste noranahi Axen Egañarekin joaten zen, diskoak eta liburuak saldu eta banatzera. 2011n Argizaiola eman zion Gerediaga Elkarteak.

Ez Dok Amairu taldea ofizialki hasi aurrez, Hernaniko Aitor zineman¹¹ eta Donostiako Vitoria Eugenia¹² egin ziren bi jaialdiak Jarrai taldeak (Iñaki Beobidek) antolatu zituen. Eta jaialdi horiek zirela-eta, Arantxa Gurmendiri zera eskatu omen zion: «Kantari hauek kantatzen hasten direnean, “zozo” hutsak ditun, eta zerbait animatua presta ezan, jendeak lo har ez dezan». Eta Arantxak berak euskaratu eta Beatlesen zenbait kanta prestatu zituen Biyurriak taldeak (Gurmendi neba-arrebak).

Liburugintza

69-71n Irakur Saila sortu zuen Txillardegi eta Benito del Vallerekin, eta liburu-sorta bikaina argitara eman. Kontuak oker atera ez baditut, honakook argitara eman zituen:

1968: Margo ederdun entziklopedia, Bartzelonako Timun Mas argitaletxearen ideari jarraituz. On Manuel Lekuona zen euskararen bateragile.

⁴ Baztango dantzak 1-2; Zuberoa 1-2; Lizarrako duntzaineroak; Trikitixa; Zuberoko Maskarak; Laguardia; San Fermin-Iruña; Lesaka; Zumarraga; Euskal kantu zaharrak...

⁵ Aita Donostia, Maurice Ravel, Guridi, Usandizaga...

⁶ Joakin Pildain, Valverde Casas... Alberdi, Gorriti, Mokoroa, Buska Sagastizabalen muska...

⁷ Ansola anaiak – Aita Olazaran eta Glez. Bastidaren piezak...

⁸ Lourdes Iriondoren Mari Petralin, Mateo Txistu, Txano Gorritxo... Kixki Mixki eta Kaxkamelon...

⁹ Mattin, Xalbador, Enbeitatarrak...

¹⁰ Ipar Amerikako musikari beltz famatu baten (Willian S. Fischer) musikaz hasita...

¹¹ Aitor zinema-Hernani, 1966-01-09.

¹² Victoria Eugenia-Donostia, 1966-01-23.

1970-1971: Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» eta Benito del Vallerekin elkartu eta Irakur Saila sortu zuen, eta honako liburuok argitara eman:

- Printze txikia* eta *Asterix*, lau liburuxka haurrentzat.
- Bizi garratza: mendu zaharrak*, Augustin Zibikarai, liburu bakarra.
- Sustrai bila*, Larresoro («Txillardegi»).
- Lurraren kondaira*, Xalbador Garmendia.
- Arrotza*, Albert Camus, J.M. Agirrek euskaratuta.
- Azken iritziak*, Bertrand Russell, Eiharalarrek euskaratuta.
- Marx eta erlijioa*, Imanol Pagola.
- Oihenarten atsotitzak eta neurtitzak*, Larresorok prestatuta.
- Euskararen batasuna*. Azken araudia, Koldo Mitxelena.
- Gauza harrigarriak bilduma, Valenziako Gaisa argitaletxearen bidez.

Herri Gogoak egin zituen lanen masterrak, Elkarrek erosi zituen nonbait, baina uholdeak kalte gogorak eragin zizkien Ibaetako artxiboetan.

Euskal Irrati-Telebista...

1979an, Gipuzkoako Foru Diputazioko Kultura Sailean zebilen zenbait jenderekin Italiara joan zen hango herri-telebista edo telebista txikiak ezagutzeko asmoz. Imanol Olaizola buru eta, Euskaltzaindiaren izenean, Juan San Martin zuen lagun. Horrez gainera, garai hartan Araluze zen Diputazioko Ahaldu Nagusia, eta burua berotu zioten nola edo hala telebista bat behar zela-eta euskaraz egingo zuena. RTVEk Jaizkibel mendian antenak zituenez, hasieran Jaizkibelen magalean kokatzea pentsatu zuten, Hondarribian alegia, Diputazioak han omen zuen lokal batean. Astean pare bat ordu-edo egin nahi zituzten euskaraz, Gipuzkoarako.

Aldundiko Kultura Batzordeko kide zen, beraz, eta, 1981ean, EITB sortzear zela eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Ramon Labaienek eskatu zion irrati-telebistarako profesionalak prestatzeko ardura har zezala, hartarako aholkulari

hautatua baitzuten. Donostiako Prim kalean, lehenik, eta, ondoren, Bilbon elkartu ohi ginen lan horretan hasteko irrikatzen zeuden neska-mutilekin. Han trebatu ziren edota zenbait komunikabidetan lanean zebiltzan berrogei bat gazte aukeratu eta Hanburgora ikastaro trinkoa egitera abiatu ziren.

Telebista berria abiatzekotan zelarik, ETBn Ekoizpen Sailean hartu zuten Iñaki, eta berriz ere harreman zuzena izatea egokitu zitzaigun, gure taldeko programen ekoizpen-ardura zuen eta.

Munduak itzuli asko ematen baitu, EAJ-EAren sortze istilutsu hartan buruhauste latzak izan zituen, baina lanean jarraitu zuen jubilatzekeo garaia etorri zitzaion arte, Miramonen. Mahai berean bazkaltzen genuen egunero, eta asko hitz egiten. Hala ere, erremin horrekin jubilatzekeo zelakoan nago. Saiatu nintzen elkartu eta egoera gozatu nahirik telebistan, baina, «hiregatik balitz, joango nindukek, baina ez nauk joango», erantzun zidan.

Iñaki Beobideren hilberria amaitzeko, ohore eta nire esker ona 1961eko urte ilunetatik Miramongo lantokira arte ezagutzeko zoria izan nuen zumaiar polifazetiko handiari.

Eskerrik asko!

Egunean egunekoa

Mari Lourdes Iriondo erriz-erri dei guztiei ezin erantzunik

Azkenaldi onetan, eguneko giroari jarraituaz euskerazko edo euskeratutako abestiak maiz entzuten dira. Batzuek San Remo, Benidorm edo orrelako sariketetan lenbizi izandakoak, eta besteak au dala edo ori dala, ao guzietan dabiltzanak. Lan denak erriagana oso ondo irixten diranean abots batekoak izatean denak abes ditzaketelako.

Gaur dakarkigun neskata au bere gitarratxoa lagun duelarik, erri bat eta besteko dei guztiei ezin baietza emanik arkitzen da, ainbeste dei ditu.

Bere eginkizunen artean, tartetxo bat lortu genuen. Berarekin aurrez-aurre gure naia betetzea gauza erreza izan zen, abeslari on bezin atsegina izaki noski.

-Zure izena?

-Mari Lourdes Iriondo

-Emen jaioa al zera?

-Bai, Urnietako erria dut sorterrri.

Gure asmoak ikusiko balitu bezela au esan ondoren, irripar eginez begiratu zigun. Ezetz esan genion, ez geniola zenbat urte zituen galdetuko. Gazte eta polita dala ez degu ixilduko, ordea.

-Urte asko daramazkizu gai auei lotuta?

-Zazpi urte dira M^a Paz Urbietako irakasle nuelarik musika ikasten asi nintzela. Gaxorik egona naiz luzaroan, eta bitartean ikasketak utzi bearrean aurkitu nintzan. Urtebete da gitarrarekin ekin niola, Cecilio Espada irakaslearekin.

-Nolatan sortu zitzaizun gitarrarako joera?

-Beti maite izan dut, lokarri auek zerbait esaten baidute. Orain dela urtebete

artera ez nuen ordea eskuetan edukitzeko zoririk izan. Bildurra ematen zidan etxean eskatzeak; zori geiegi zan ain errez niganatzeko. Aitatxok au jakitean, joan den urtean erosi zidan, eta orain lotara ere berarekin joaten naizela esan diteke.

–Nor dezu laguntzaile? Alegia, musika eta letrak nork prestatzen dizkizu?

–Euskeratuak ez direnean, bai letra eta bai musika neronek sortuak izaten dira. Letra, ordea, neuk sortutako abestietan, nik erderaz egiten ditut eta gero nere leengusu Joxe M^a Iriondok euskeratu. Badut Urnietan ere lan au egiten didan emakume bat, Ernaniko lagun batek ere bai.

–Ordu asko eramaten al dizkizute eginkizun auek?

–Ez, ez askorik. Aserre nagoenean gitarra ta magnotofoia artu eta abestuez sortzen ditut.

–Aserre zaudenean beraz, bejondeizula! Abesten entzun ondoren ez dirudi ba orrelakorik izan ditekeenik. Nolanai triste edo barrenkoiak atsegin dituzula oartu gera.

–Bai, txa, txa, txa eta zarate giroko abestiak ez ditut maite. Bearbada inoiz abesten asten banaiz, nork daki zer gerta diteken.

–Erri bat eta bestera zabiltzan onekin, zer derizkiotzu erriak atsegin duela abeskera berri au ala ez?

–Ondorenari begiratuaz, baietz aitortu bear. Abesten dudan erri bakoitzetik eskutitzak bereala iristen dira, zorionak emanez eta letrak eskatuz. Erria, abesti berri auen egarri da, eta tamalgarria izango litzake guk ez emateagatik, irrati edo telebista bidez ikasitakoak bakarrik abestuko balitu.

–Beraz, euskeraren alderako ere zerbait egin ditekela uste al duzu?

–Asko eta asko. Asiera bezela, mugaz aruntzako sariketetan irabazle ateratzen diran abestiak euskeratuaz. Abesti oiek egun gutxi barru, guk ala nai edo ez, gazte guziak abestuek izango dira; eman dezaiogun euskal letra eta berak oartu gabe, musika entzute bakoitzean euskeraz abestuz ikusiko dituzu.

–Z. ARGIAren bidez, Otañoren emanaldian, Zizurkilen nolatan izan zinen jakin genuen. Orain norako asmotan zera?

–Andoain, Billabona eta Tolosatik otseginak ditut; ea inor aserretu gabe moldatzen geran. Baina denetara iritxi ezinez nabil, eta ez dedila inor aserretu.

-Diska kontuan zerbait egin al dezu?

-Ez, oraindik ez. *BELTER* etxeak prueba batzuk eskatu dizkit, berdin Baionako Goiztirik ere, baina ez dakit zertan geldituko geran.

-Bukatu baino leen, Ye-ye, Beattles eta era onetako talde oriek atsegin al zaizkizu?

-Ez, ezta batere. Oriek egiten dituzten gauzak ez ditut ontzat ematen. Baina Beattlesak gitarra ondo jotzen dute, niri beintzat ori atsegin zait. Orraztu ez gainera, bada orduan zerbait ondo egiten dutena.

Jarraiko Agirre
Zeruko Argia, 1965-VI-13: 4. or.

Personaje bila

Mikel Laboa

Duela egun gutxi, diska berri bat entzun nuen, Mikel Laboaren leen diska. Abeslari gazte onek aintziñako abestiekin osatu du bere eresorta. Baiñan aren abesteko erak eta gitarraren akordeak soñu zaarrak, esnatu bakarrik ez baizik eta gaztetu, era ontako aide berri bat ematen die.

-Leendabiziko diska orretan ze abesti grabatu dituzu Mikel?

-O Pello, Pello; *Aurtxo txikia; Bereterretxen* eta *Amonatxo*.

-Denak zaarrak?

-*Amonatxo* ezik (Barbier da egillea), beste guzien egillea ez ezaguna da, ortikan atera urte batzuek izango dituztela... gaiñera beren gaia... Bereterretxena esate baterako, Euskal Errian Vgarren gizaldian (Beamontes~en eta Agramontes~en artean) sortzen ziren gertaketa bat geio edesten da, zelan Lerinteko kondeak Berterretxe jauna il zuen. Etxeberritik Ezpeldoyerako bidartean dagoen arri irargai batek gogorazten du gertakizun au...

-Gauz auetaz itz egiten Mikel berotu egiten da, argi ikusten da gaia gogoko duala eta ondo ikasia gaiñera... Bainan... oraingo, aide berri oriek ez dute ondatuko abesti oien izakera?

Ez ritmoa zerbait berritzeak ez dio sustraia aldatzen abestiari, gainera interprete bakoitzak beti eman bear dio bere estiloa.

-Uste duzu aski dala abesti zaarrez baliatzea, gaur eguneko musika bat lortzeko?

Abesti zaar auek oso gutxirek ezagutzen dituzte, nik uste dut bearrezkoa dala jendeari ezagutu araztea. Gainera ori leendabiziko pausoa da, bigarrena berriak eratzia litzake.

-Nola ikusten duzu, gaur eguneko euskal musika ariña?

Eres-egilleak ez diote garrantzirik ematen.

-Zure ustez ba du?

Bai noski. Kontuan artu zazu erriak abesten duan musika dala. Bizarra kentzen ari zeran bi_ tartean ezin duzu bost abotsentzako egindako abesti bat kantatu. Garrantzirik ez emate orregatikia, erderaz itz egitene: dakitenak erderaz abesten dute... Gainera telebista eta irratia ren influenza oso aundia da.

–Eta euskeratutako abestiak?

Bear bearrezkoak dira, bai.nan garaiz, kontuan artu orain arte ez dirala sekulan ere bear dan garaiean eldu, guk abesterako. aspaldidanik daude modatik pasata. Bereala euskeratu bear litzazke, beste iskuntzetan bezela.

–Auek denak jendeak onartzen dituela uste duzu?

Dudarik gabe “Soroak” en diskarekin garbi ikusten da “Salbatore”, oso abesti zaarra da eta giro berri orrekin oso polita iduritzen zait, “Ikusten” berriz euskeratutakoa. Jendeak biak onartu ditu.

–Uste duzu euskal abesti berri bat sortuko dala?

Bai garai batian beste ritmo batzuekin gertatu zan bezela, orain ere sortuko da euskal abesti berri eta berezi bat, latindarren eta anglosajondarren desberdiña. Bere seillo berezi bat izango duana esan nabi dut. Gainera bere gaia ma mitsua izatea lortu bear litzake (alegia prolema espiritualekin, sozialekin ta...) tamala bai da jendeari iristeko, orrelako bide on bat alperrik galtzea.

–Orretarako bearrezkoa litzakena?

Konkurtsuak eratzia beste musika klasiakin bezela. Uste dut ba dala ordua, Euskal errian musika onek duana garrantzia ikusteko.

Au da, abeslari ta sendagille gazte onek diona, nere uztez gitarrarekin askoz obekiago esaten du.

Zorionak lendabiziko exituengatik, bigarrengo diska itxoiten gelditzen naiz. Laister izan deila.

Zeruko Argia 1965-08-01: 4. or.

Oharra: Elkarriketatzailak ez du bere izenik jarri, baina Iñaki Beobiderena da.

1966ko otsailaren 23an Donostiako Victoria Eugenia antolatutako Leen Euskal Abesti Berrien jaialdiari buruz

BESTELAKOAK AL GERA?

Jarrai taldekoek, lendabizi Ernanin eta ondoren Donostian, oraindik ez dala denpo asko Jaialdi berezi batzuek antolatu ditugu. Ernanin dagoen gizarte bateko adiskideak bearturik, abeslariekin itzegin ondoren egindako gauz bat izan zen: jendearen etorrera onak pentsa arazi zigun ordea, egun artako esperientziaz baliaturik, gauz batzuek kendu eta besteak geituaz, Donostian ere ba zegoela gauz berdiña egitea, eta Ernanin ain gogoz txalotu zan erakusaldia Donostian obeagotzen saia bear genduela.

Pentsatu eta egin. Ilbeltzaren 23an Victoria Eugenia antzokian ez zegoen exer leku bat bera ere. Arrixku aundiko gauza zan, baina egun artan ikusten ziran arpegiak berak adierazten zuten ontzat eman zitezkeala, kezka eta eragozpen guziak. Jendea pozik zegoen. Berebiziko jaialdia igaro zuten. Txalo sutsuen bidez, ontzat eman zuten eginiko prueba.

Egunak aurrera, erdaldun eguneroko batean emakumezko baten lana agertu zan Jaialdi auek egite kaltegarria aipatuaz. Geroxeago, beste eguneroko bat aurrez idatzitakoarekin bat egiñaz jantzi urratzean geitu zan, ondoren irrati bat, gero...

Bakoitzak bere iritzia eman dezake, ta auek berena eman dute, orren aurka ezin joan gindezke. Bada ordea zerbait argitu bearra, ta denak beren iritzia eman dutenez, gurea agertzera noa.

Batik bat, egun oietan ez da Folkore Jaialdi bat eman nai izan. Ez dakigu ori nondik aterea izan dan. Ez degu urte euskeraz mintzatzea, euskeraz abestea folkore egiea danik, ez daukagu ain galdutzat gure euskera.

Ritmo berriko abesti batzuek abestu zirala? Bai jaunak, izan ziran gureak, zaarrak edo sortu berriak, Prestley, Holliday eta Beatlesen abestiak ere bai ordea. Eta zergatik ez? Gure izkuntza euskara izaki, eta zer dela eta ezin dugu euskaraz kanta? Euskarak mugak al ditu? Onetarako erabili daiteke eta beste gauza artarako ez? Ez, ez dugu zuek bezala pentsatzen. Guretzako euskara, ez da baserri batean edo

urrezko bitrina batean gorde bear dugun gauza bat, guretzako euskara, gure egintza guztietan beraz balia gindezkeen gauza bat izatea nai dugu.

Gaztediak ez ditu abesti zaarrak gorrotatzen, ori argi erakutsi du Mikel Laboaren diskari eman arrerarekin. Edizio guztia agortu da. Nai gabe, ordea, telebisio, irrati, diska eta abarrek beste ritmo batzuetara eramaten du; zergatik orduan berari atsegin zaizkion doinuari euskal itzak eman ez? Ori ezin diteke inolaz ere, euskararen aurka joatea izan. Euskara beste izkuntza guztiak bezala erabiltzeko da, eta gure iritziz zernaitan erabili bear da.

–A! bainan zuek barka ezinezko pekatu bat egin duzute, GITARRA joaz euskaraz abestu.

Pena ematen digute orrelako jendeak, ezin ditugu aintzakotzat artu, barre, ezin beste egin dezakegu.

Auek gure mendietako baserri batean telebisioaren antena bat ikusten dutenean su ta gar jartzen dira, Erriaren amaiera ikusiaz. Gu ere ez gara alaitzen, ez, ala da; ez ordea euskal baserrira telebisioa iritsi delako, euskaraz ez izateak, orrek mintzen gaitu.

Denok dakigun gauza da Jazz musika era nola sortu zan. Garai artan beltzaranen folklorea zan, Jainkoari eskerrak, eboluzionatu egin da ordea; gaur, benetako jazz batekin arkitzean ereslari ospetsuak errespetu aundienez begiratu izan diote.

Donostiako jaialdian txalapartari sarrera eman genion, folklore jai baten usaia emateko, Zuaznabar anaiak ain bereziki erabiltzen duten ritmo orreri gaur egunean alderdi on asko ikusten dizkiogulako. Orregaitik ez ziran, oitura duten bezela, ardi larruz jantzita atera, gaur eguneko jantziarekin baizik, ritmo ori gaur-gaurkoa iruditzen bait zaigu.

Jaialdi ori dela ta “anonimoak” jasotzea ez zaigu batere arritu, ba genekien gauza da “euskal espiritua” “euskal arima” mito bat besterik ez direla.

Bukatu baño leen, gazteak zeratenoi, nere adiskide on Saizarbitoriaren aurkezpen itzak gogoratu nai dizkizuet: “Gazteak, izan zaitezte yeyé edo nai dezutena, baina leenen eta beti euskaldunak”.

Zeruko Argia, 1966-III-13: 7. or.